

## EGINKIZUNAK

Donostiako Tranbia Konpainia Donostiako hiri barruko garraio publikoa kudeatzea helburu nagusizat duen enpresa da, eta bere izen komertziala Donostiabus edo Dbus da. Era berean, esandako helburu nagusi hori lortzeko erabiltzen diren bitarteko osagarri guztiak ustiatzen ditu (informazio guneak, geltokiak, etab.)

Donostiako Tranbia Konpainia Sozietate Anonimoa da. Konpainia 1886. urtean sortu zen, eta 1887ko uztailaren 18an eman zien donostiarrei lehen zerbitzu publikoa. Gaur egun, eta 1981etik, Donostiako Udalarena da konpainiaren kapital sozial osoa.